

berriak Triforio-tik



araba
álava

Jaiotza aldarera itzuli da

Katedraleko jaiotza tradizionala erdiko naberean instalatu da berriro ere. Estilo Neoklasikoko konposizioa 1870ean egin zuen Esteban Agredak, eta duela urte batzuk zaharberritze prozesua jaso zuen. Lan horri esker, egun hauetan katedralera hurbiltzen diren pertsonak, Haurrarekin dagoen Ama Birjina, San Jose, hiru artzainak eta astoa, ardia eta idia biltzen dituen multzo kulturalaz gozatzeko aukera izango dute. Piezak zur polikromatuzkoak dira eta multzoa neoklasikoa den arren, tradizio barrokoaren presentzia nabari zaio. Jaiotzaren erreproduktzio bat tenplura egiten diren bisitetan ikusi ahal izango da.




Santa Mariako “Handitasun gotikoak” “National Geographic” liluratu du

“National Geographic” dibulgazioari, naturari eta bidaiari buruzko aldizkari ospetsuak Gasteizko hiria sartu du “2021eko onenari” buruzko zenbakian. Zenbaki horretan, “etorkizuneko bidaietarako eta bidaiatzea zergatik maite dugun gogorarazteko” inspiratzeko “sortzen ari diren” munduko 25 jomuga aipatzen ditu. Hiriko elementu erakargarrien artean, aldizkariaren nazioarte-

ko edizioak “Erdi Aroko auzoa menderatzen duen muinoa koroatzen duen Santa Maria Katedralaren Handitasun gotikoa” azpimarratu du. “Kultura eta Historia duten Lekuak” kategorian agertzen da, Tulsarekin (AEB), Pueblo Nacionekin - New Mexico (AEB), Guamekin (Mikronesia), Gyeongjuarekin (Hego Korea) eta Tonglurelomekin (Txina) batera. Era berean, “zaharberritze lanak kaskoa buruan jantzita bisitatu ahal izatea esperientzia paregabea bihurtu da”.

“National Geographic” mundu mailako erreferentziarako argitalpenetako bat da bidaien arloan, eta bere artikuluek milioika pertsonak jarraitzen dituzte mundu osoan. Gasteiz 2021ean “sortzen ari diren” jomugen artean agertzeak, eta are gehiago Santa Maria Katedrala bertako elementu erakargarrienetako bat dela aipatzeak, jarduera turistikoaren berreskuratzen lagunduko du, ziurrenik, osasun krisiak eragindako egungo egoera gainditzeko denentzat.



Mezenasgo

Garai zailak, esker oneko garaiak

Koronabirusaren pandemiak pertsona guztien bizitza aztoratu du mundu osoan. Baita Santa Maria Katedrala Fundazioarena ere, 2020an bere XX. urteurrena programazio berezi batekin ospatzekoa baitzen. Baina zailtasunak zailtasun, Fundazioa ez da gelditu eta gure obra programarekin, bisita gidatuekin eta kultur jarduerekin jarraitu dugu, baina errealitate herrira egokituta. Hori guztia gure mezenasei eta laguntzaileei esker lortu dugu.

Santa Maria Katedrala Fundaziotik eta Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Gasteizko Elizbarrutiak osatutako bere patronatutik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gure mezenasei, une zail hauetan izan duten konfiantzagatik eta eman duten laguntzagatik. Lehenik eta behin, gure "Zutabeak": Vital Fundazioa, SLEX, Eaboral Kutxa, El Correo, Diario de Noticias de Alava, Daisalux eta ElectraVitoria - Orona. Halaber, World Monuments Fund eta Endesa Fundazioa erakunde laguntzaileei. Eta, jakina, "Fundatzaileen Zirkulua" osatzen duten herritar guztiei. Birusak ez gaitu menderatu, eta hori, neurri handi batean, guztiengandik jaso dugun indarrari esker izan da.

Osasun krisiak proiektu asko jarri ditu zalantzan, baina bada oraindik aldatu ez den zerbait: gure mezenasek eta laguntzaileek Santa Maria Katedrala Fundazioarekin duten konpromisoa. Hemendik, eskerrik asko, benetan.

Santa Maria Katedrala Fundazioa



2020an hildako adiskideen oroimenez

Fundazioak aurtien izan duen galerarik handienetako bat Covid19aren erruz bere lagun eta elkartekide batzuk hil izana izan da. Giza kapital berreskurazekin hori askoz garrantzitsua da Fundazioarentzat jarduerak bertan behera uztea edo mugikortasuna mugatzea baino. Katedralak urte askoan jarraituko du zutik, proiektu aitzindari batean konfiantza izan zuten haien laguntzari esker, eta orain gure konpromisoa obrak amaitu arte haien ondareari eustea da. Utzi egin gaituzte, baina haien presentzia sentitzen jarraitzen dugu. Gure doluminak senide eta hurbileko guztiei.



Jarduera "seguruak" Sortzez Garbiaren zubian

Mugikortasunaren murrizketek zailtasunak sortu badituzte ere, Santa Maria Katedrala Fundazioak Sortzez Garbiaren zubian programazio segurua eta egungo osasun egoerara egokitua eskaintzearen aldeko apustua egin du. Ekimen horren bitartez, Fundazioak Gasteizko kulturarekin eta aisialdiarekin duen konpromisoari eusten lagunduko du, jaiegutietan batez ere, egun horietan nabarmenago egiten baita agenda sozialik ez dagoela.

Horrela, Fundazioak Errealitate Birtualaren Esperientzia indartu zuen, egunero saio bikoitzak eginez, eta haurrentzako tailerrak antolatu zituen jarduera ludi-koekin, birziklatzeko materialekin elurrezko panpina bat sortzea, besteak beste. Era berean, Harresiaren Tarte Zaharrera modu librean sartzea baimendu zen, eta hilaren 8an ate irekien jardunaldia antolatu zen talde txikienez.